

2008ko bigarren hiruhilekoan, ezkontza zibilen proportzioa handiagoa izan zen aurreko urteko aldi berean baino

2008ko apirilean, maiatzean eta ekainean 2.835 ezkontza izan ziren, aurreko urteko aldi berean baino %-1,5 gutxiago

2008ko bigarren hiruhilekoan, ezkontza zibilak gehitu egin ziren aurreko urteko aldi beraren aldean, %6,5 gehiago; guztien %55,1 izan ziren, Eustaten datuen arabera. Ehuneko hau 2008ko lehen hiru hilekokoaren azpitik dago, orduan ezkontza zibilak %82 izan baitziren. Urteko lehen hiruhilekoan, ohi bezala, ezkontza gutxi izan ziren, baina 2008ko bigarren hiruhilekoan, berriz, nabarmen igo ziren maiatzean eta ekainean.

2008ko apiril, maiatz eta ekainean 2.835 ezkontza egin ziren Euskal AEn, aurreko urteko hiruhileko berean baino %-1,5 gutxiago. Herrialdeka, Bizkaian 1.519 ezkontza izan ziren, Gipuzkoan 828 eta Araban 304. Bestalde, 80 bikotek bizilekua Euskal AEtik kanpo kokatu zuten.


2008ko bigarren hiruhileko horretako 2.835 ezkontzetan, bizilekua Euskal AEn duten 2.760 gizonetzko eta 2.768 emakumezko ezkondu ziren. Horietatik 2.541 senarrentzat (%92,1), lehen ezkontza izan zen; 15 alargun eta 204 dibortziatu, aldiz, berriz ezkondu ziren. Emakumeen lehenengo ezkontzen ehunekoa gizonenaren antzekoa izan zen: aurretik ezkongabeak ziren emakumeak 2.569 (%92,8) izan ziren; alargunak, 13; eta dibortziatuak, 186.

Mantendu egin zen gero eta nagusiago ezkontzeko joera

Ezkontideek eztei-egunean zuten adinari erreparatuta, senarren artean, %75,4k 30 urtetik gora zituzten; emazteen artean, berriz, %61,7k. Proportzio horiek 2007ko hiruhileko berean izandakoak baino handiagoak dira (%73,9 eta %58,1 hurrenez hurren) eta beraz, hiruhileko horretan ere eutsi egin zaio gero eta nagusiago ezkontzeko joerari.

	2008ko 2. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoa (2008ko 1. hiruhilekoa)		Aurreko urteko (2007ko 2. hiruhilekoa)	
	kop.	%	kop.	%	kop.	%
EZKONTZAK	2.835	100,0	960	100,0	2.877	100,0
Kanonikoak	1.273	44,9	174	18,1	1.480	51,4
Zibilak	1.562	55,1	786	81,9	1.397	48,6
SENARGAIK	2.760	100,0	929	100,0	2.797	100,0
Ezkongabeak	2.541	92,1	815	87,7	2.588	92,5
Alargunak	15	0,5	8	0,9	18	0,6
Dibortziatuak	204	7,4	106	11,4	191	6,8
EMAZTEGAIK	2.768	100,0	931	100,0	2.836	100,0
Ezkongabeak	2.569	92,8	817	87,8	2.618	92,3
Alargunak	13	0,5	5	0,5	8	0,3
Dibortziatuak	186	6,7	109	11,7	210	7,4

1. grafikoa: Ezkontzen hilez hileko mugimendua



Oinarria 100=b.b.

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Martín González Hernández

+Tlf:+34-945-01 75 49 Faxe:+34-945-01 75 01

Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es